


BERRIGARA

61. zenbakia

JARDUN Elkarte Bergara


1994, irailak 15



San Martinak bertan



LARRAÑAGA Autoeskola



Artekale, 22 Tfnoa: 76 16 63 BERGARA

INGELESA eta FRANTZESA

- Maila guztiak
- Azterketen prestakuntza
- Ikastaro trinkoak
- Umeak, gazteak eta helduak
- **KURTSO HASIERA: Urriak 3**

**MATRIKULA
ZABALIK**



INFORMAZIOA:
Begarako UNED (3. pisua)
☎ 76 06 87

Sirimiri JATETXEA

**ZABALDU
BERRIA!!**

- **EGUNEKO MENUA**
- **KARTA**
- **PINTXO BEROAK**

San Martin Zoriontsuak izan ditzazuela

Barrenkale, 3

☎ 76 59 19

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.
Tfnoa eta faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Masterreka, 13. 20.570 Bergara.
= 76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta
Mikel Elkoroberezar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Gorka Elorza.
= 76 03 97

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola,
Miguel Angel Elkoroberezar, Alex
Labaen, Iñaki Eraña, Juan Martin
Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain,
Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander
Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika
Belastegi, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa
Bikuña,

Komikia eta marrazkiak:

Bittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon
Alvarez, Jose Martin Ezenarro
eta Julian Ezenarro.

Portadako argazkia:

Jabier Areitio.

Banaketa:

Txantxangorri Taldea.

Tirada: 3.700 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Copyright: BERRIGARA

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik.


Z E R B E R R I D A ?

ALBERTO IÑURRIETA

Taun-Tauneko partaidea

- Zein asmorekin
zoazte Charlevilleko
(Frantzia) Txotxon-
gilo Jaialdira?

- Charlevilleko hau munduan egiten den txotxongilo jaialdirik ospetsuena da, 300 bat talde bilduko baitira bertan. Oso interesatuta geunden han izateko, batez ere gure azken lana, "Makinatu", hitzik gabekoa dela kontutan izanik. Nahiz eta jaialdi ofizialean sartzerik lortu ez dugun, hilaren 28an emango dugun emanaldiarekin gure lana ezagutzera eman nahi dugu, mundu osoko programatzaileak egongo baitira. Guretzat azken batean inbertsio bat da, ondorioak ateratzea espero dugulako. Dena den,



apostu fuertea da eta hara joateko laguntzak jasotzekotan gaude.

- Charlevilleko esperimentziaren ondoren zer?

- Urriko lehen egunetan Madrileko Udazkeneko Antzerki Jaialdian izango gara "Makinatu"rekin eta ondoren, hilaren 20an, Donostian, Euskal Herriko Txotxongiloen Mostrian.

"Charlevilleko jaialdian gure lana ezagutzera eman nahi dugu"

I T U R R I O N E T I K

Merkatu txikia Espoioian kokatzeko proposamena

Udaleko Gobernazio Batzordeak merkatu txikia Espoioian kokatzeko proposamena luzatu du. Udaltzaingoak Santa Marina inguruan egindako neurketaren ondoren, metro aprobetxagarriak 80 direla ikusi zen eta merkatua kokatzeko gutxienez 138 metro behar direnez, ezinezkotzat jo zen bertan merkatua kokatzea. Ondorioz, batzordea osatzen duten 6 batzarkideek, aho batez, merkatu txikiaren kokapen berria Espoioian izatearen aldeko proposamena egitea erabaki zuten, behin-betiko kokapenaren erabakia momentuz pendiente utzi delarik.

ESAN DUTE

"Pasa den abuztuaren 22an Bergarara joan nintzen lagunekin eguna pasatzera. Afaldu ondoren, *pote* batzuk hartzen izan ginen eta handik gutxira kartera galdu nuela konturatu nintzen. Kartera barruan nere agiri guztiak neuzkan: NAN, gidatze karneta militar karneta eta, horrez gain, diru kantitate bat.

Egondako tabernetan galdetu eta bazterrak miatu ondoren, ez genuen kartera topatu eta galdutzat eman genuen.

Diru kantitatearengatik galdutzat eman nuen bai, baina sorpresa haundia hartu nuen hurrengo egunean telefono dei bat jasotzerakoan; gizon zintzo batek kartera topatu zuela adierazi zidan. Eta ez zen ezer falta. Orduan gizon horrekin egoteko aukerarik izan ez nuenez, lerro hauetatik berak egindakoa eskertzea gustatuko litzaidake, kontutan izanik gainera, gaur egun, oso zaila izaten dela jende zintzoekin topo egitea"


MIKEL LOPEZ GALARRAGA
Zaldibiko biztanlea
EL DIARIO VASCO



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du




Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



CUATRO MUJERES Y UN DESTINO

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



SOMBRAS EN EL SILENCIO

Ostirala: 17.00, 19.30, 22.30.

Zinea

▼▼ *Westernaren* berrindartzea dela eta, emakumeek ere badute zeresanik. **Jonathan Kaplan**en filme honetan, **Madelaine Stowe, Mary Stuart Materson, Andie MacDowell** eta **Drew Barrymore** ditugu benetako protagonistak. Injustiziak jasateaz asperturik, aurrera egin ahal izateko modu bakarra elkarrekin burrukatzea dela ikusiko dute...

▼▼ **Marlee Matlinek**, *Oscar* bat irabazi zuen gormutuak (*Hijos de un dios menor*), protagonizatutako azken filma. Berak jakin barik eta lagun batek eskatuta, balio haundiko moneta bat gordeko du bere etxean. Berehala bere laguna hil egingo dute eta bera mehatxuak jasaten hasiko da. Polizi maltzur batek (**Martin Sheen**) ahal duen guztia egingo du egia jakin ez dadin. **Robert Greenwaldek** zuzenduta.

Deiak

▼ **EAJ-PNVren** Alderdi Eguna hilaren 25ean Salburuan. Autobus-eko txartelak Batzokian. Irteera goizeko 9etan Beheko Estaziotik.

▼ **HBren asanblada** hilaren 20an, 19.30etan Arrano Zaharrean.

▼ **Euskal preso**en aldeko manifestazioa hilaren 17an Donostian. Autobusa aterako da Beheko Estaziotik 16.00etan.

Ogia

▼ **Ostirala 16:** Konde.
▼ **Igandea 18:** Bolintxo.

GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 16:** Camacho/Azkoaga.
▼ **Larunbata 17:** Guallar/Español.
▼ **Igandea 18:** Guallar/Corcuera.
▼ **Astelehena 19:** Estella/Irizar.
▼ **Asteartea 20:** Mozos/Amezua.
▼ **Asteazkena 21:** Camacho/Ruiz.
▼ **Osteguna 22:** Puy/Morales.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

YAZKI

UME GAZTE
Neska eta Mutil

Irizar 3 lbargarai 8
☎ 76 16 54 ☎ 76 54 73

LONBIDE

OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

PINTURA PLAZARA

Aire Zabaleko Margo Lehiaketako lanak ikusgai kultur Etxean

Igandean jokatu zen Aire Zabaleko XX. San Martin Pintura Lehiaketa. Guztira, Euskal Herri osotik (Eibar, Areeta, Deba, Olaberria, Bilbo, Ordizia, Mutriku, Santurtzi..., etab.) etorritako 32 partaide izan ziren (tartean 7 bergarar) eta guztiek, "Herriko hirigunea" gaia zelarik, herriko txokorik ezagunenetakoak margotzeari ekin zioten goiz osoan zehar. Azken 20 urteetan Bergarako Kultur Ekintza izan bada lehiaketa honen antolatzailea, aurten Udalak hartu du bere gain antolaketa, pintore talde baten eta zenbait entitateren laguntzaz.



Urtero bezala, aurtengo XX. edizioan pintura zaletu ugari hurbildu zen Bergarara, kale eta etxe ezagunenak margotzeko asmoz.

Pintore gazteei edo berriei aukera bat ematea dugu helburu nagusia eta horregatik, pintoreak promozionatu nahirik, saritutako margolari guztiek sari bera jaso zuten: 15.000 pta. eta egiaztageria. Pello Alberdi, Abdon

Juaristi, Luis Laskurain eta Migel Okina pintorek eta Koldo Pereira zinegotzi eta Hezkuntza eta Euskara Batzordeburuak osatzen zuten epaimahiak ondoko margolariak saritzea erabaki zuen: Be-

atriz Atorrasagasti (Bergara), Carlos Galarraga (Bergara), Jose Ramon Guerra (Bilbo), Jon Idigoras (Ermua), Juan Antonio Luna (Ordizia), Esteban Oroz (Eibar), Juan Ramón Pérez (Bilbo) eta

Jokin Telleria (Beasain). Aurreko saririk jaso ez zuten Maria Paz Alustiza eta Antonio Arrillaga bergararrek ere sari bera eskuratu zuten. Sari banaketa igande arratsaldean egin zen Kultur Etxean.

Aurkeztutako lanen erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean bertan igandera arte ohizko ordutegiarekin: eguerdiko 12etatik ordu bietara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

Euskal Herri osotik etorritako pintura zaletuen lanak ikusteko aukera dago Kultur Etxean

Zure konfidantzako denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Samartiñetan makailauari bueltaka

Musika mota hau, ni barruan sartu eta geroztik sortutakoa izan behar da nonbait; kalean nengoela ez nintzen ezagutzera iritsi behintzat. Egun hauean, berriz, bisitetara etortzen zarenok diostazuenez, hauxe izan behar da jende gehienaren gustoko musika; beno, zer esango dizuet ba... inozoa ni, makailaua, lurrezko kazuelaran bakarrik zerbitzen zela pentsatzerakoan.

Kalean gauzak horrela dauden honetan, korrontearen aurka igaritan ibiltzeaz ohituta dagoen honetxek, "tasio" filmean azaltzen den erromeriaren antzeko giro sano eta apartaz gozatzeko irrikatzen; orain ere, ezin gehiengoak eskatzen duenari egokitu. Hau da marka gero, eh?

Bukatzeko, Samartiñak gainean daukazenez, musika kontsumitzerakoan, Kantauriko itsas hegaluzeak kontsumitzerakoan legez; bata zein bestea, euskal labeldunak izan daitezela. Nik irailaren 16an jateko makilau lehorra izango dut agian; baina, zin dagizuet, goizean Tapia eta Leturiaren piezak entzunez iratzarriko naizela.

Jai alaiak izan ditzazutela!!

JOSE LUIS LOIDI "ROSSLI".
HERRERA

Aupa Kanto!!

Hire amaren heriotzaren albiste mingarria jaso nuen egunetik nire burua bueltaka aritu duk etengabe, eta zer egin ere ez nekiela ibili nauk hiregana hurbiltzeko moduren baten bila. Lehenbiziko unean, hire/zuen bihotzean (baita nirean ere) egongo zen mina imajinatzean, ezintasun handia sentitu nian jakin badakidalako zein latza den elkarrengandik urrundu, baina era berean hurbiltzen gaituzten lau orma hauen artean isilean sufritzea. Leonera telegrama bat bidali nian, nire sentimenduen islada zena, baina ez huan hire eskutara heldu atzera itzuli zidatelako eta orduan orduko nire ezintasuna haserre bizia bihurtu huan. Orain ez zekiat nora idatzi baina ez diat idatzi nahi ere, ez baitut nire eskutitza batetik bestera nora ezean ibiltzerik nahi.

Hire ondoan senti nazan nahi diat, bihotz bat beste bihotz baten ondoan eta horregatik lau lerro hauek bidaltzen dizkizuet maitasun eta elkartasunez beterik, eta bide batez jakinarazi nahi dizuet negar malkoren bat isuri behar izatekotan, nire sorbalda hortxe duzuela eta ni ere bat eginda nagoela zuekin. Telesforo Monzonen abestiak dioen bezalaxe, lepoan hartu eta segi aurrera, eta horrela eginez egunen batean Euskadi askean zerura begi-

ratu eta bere disdiraz bidea argitzen digun beste izar bat gehiago ikusiko diagu.

Bukatzerari nihoak. Hala ere, adierazi nahi niake oso une zorionsuak igaro ditugula elkarrekin, baina orain izaki maitatu baten heriotza sufritzea egokitu zaiguk eta adiskideak une on eta hain on ez direnetan egotekoak direnez, hementxe negok ni. Ez zeukat gehiago luzatzeko asmorik, baina agurtu aurretik lerro hauen bidez maitasun eta indarrez beteriko besarkada goxo bat helerazi nahi dik hitaz ahazten ez den eta benetan maite hauen adiskide honek.

Beno Kanto eutsi gogor, zaindu eta beti aurrera garaipena lortu arte. GORA EUSKADI ASKATUTA. Gora gu ta gutarrak. Aska.

MIKEL ASKASIBAR.
HERRERAKO ESPETXETIK

Zuzenketa

Joan zen asteko BERRIGARAn Belkarreko zozketen berri ematen genizuen notizian, bigarren saria Lazpiur harategiak eman zuela jartzea ahaztu zitzaigun. Barkamenak eskatu nahi dizkio BERRIGARAK Lazpiurri egingandako okerragatik.

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



HB: "Merkatuaren inguruan jestio txarra egin du Udal Gobernuak"

HBren ustez Udalak ez ditu baserritarren eskaerak kontutan hartu

Herri Batasunako Talde Municipalak prentsaurrekoa eskaini zuen joan zen astelehenean, Oxirondoko merkatuaren inguruan sortu diren gora-beherei buruz euren ikuspegia azaldu asmoz.

Prentsaurrekoan, HBko zinegotziak eta Talde Municipalako kideak izan ziren.

Lehenik eta behin merkatuak izan duen kosto altuaren (ia 300 milioi pzta.) errua Udaleko Gobernu Batzordeak HBri leporatu izana kritikatu zuen Anaje Narbaizak, aurreko legegaldian Jose Luis Elkororen gobernu taldekoa izandakoak. Anaje Narbaizak esan zuenez: "Aurreko legegaldian HBko gobernu taldeak egin zuen baserako ajudikaziotik, gaur egun merkatua bukatu den arte desfase haundia izan da. Merkatua garestiago atera da, orain dela hiru urte kontratatu zen obrari legealdi honetako Gobernu Batzordeak ez diolako egin jarraipen zehatzik".

Bestalde, azkenengo hiru urtetan Udaleko Gobernuaren eta baserritarren arteko harremanik ez izana kritikatu zuen HBk: "Postu fijoetako saltzaileekin bilerak izan badira ere, eta azkeneko konponbideak aurkitu badira ere, baserritarrekin ez da hori egin. Baserritarrekin orain de-

la urte t'erdi egin ziren bilera batzuk eta bilera horietan baserritarrek bi betebehar eskatu zituzten. Alde batetik, orain eztabaidak sortarazi dituen ranpa egitea, eta bestetik, merkatuaren aldamenetan dauden biltegietako baten pareta botatzea fruta edota azeituna saltzaileak eta baserritarrak, guztiak batera jarri abal izateko. Orditik denbora pasatu da eta baserritarren eskaerak ez dira kontutan hartu. Beraz ez diogu talante irekia ikusi Gobernu Batzordeari, horregatik uste dugu jestio txarra egon dela Gobernu taldearen aldetik".

Baserritarrekin bat

Baserritarrek azken egunetan izan duten jorkaerarekin bat datozela adierazi zuten HBkoek: "Orain dela urte t'erdi baserritarrek planteatutako eskaerak ez dira kontutan hartu eta beraz, baserritarrek arrazoia dute merkatu berrira ez joaten. Baserritarren jarrera ez dugu interpretatzen Gobernu Batzordearen kontrako jarrera bezala, baizik eta euren erreindikazioak aldarrikatzeko postura bat bezala. Ez dugu ulertzen, berriz, baserritarrengana multa mehatxuekin joatea", esan zuen Felix Askasibar zinegotziak.

Bestalde, HBren iritziz merkatua bertako pro-



HBko Talde Municipalako kideak asteleheneko prentsaurrekoan.

duktuen aterabide izan behar da eta horretarako merkatua bultzatzeko jestore baten beharra ikusten du: "Merkatua dinamizatzeke pertsona bat kontratatu beharko litzateke eta ez da horrelakorik egin".

San Martinetako azoka

Azken urteetan San Martinetan egin ohi den barazki, fruta eta loren azokari buruz ere jardun zuten HBko Talde Municipalako kideek. Gaizki ulertu bat izan dela eta Erramu Zapatuko Azoka egunean antolatzeke asmoa zuen Udalak baina azken orduan zapatuan egitea erabaki du. Horren inguruan zera adierazi zuten HBko ordezkariak: "Udalak Bergarako Kultur Ekintzaren desager-

pena aitzakia moduan jarri du aurten azoka ez antolatzeke, baina horrek ez du balio, uztailean bazekitelako Bergarako Kultur Ekintzak ez zuela azoka antolatuko. Bestalde, baserritar batzuk Udaleko Gobernu Batzordearekin harremanetan izan dira azoka euren antolatzeke eskaera egiteke, baina Udalak laguntza ukatu die. Gainera, Erramu Zapatua apirilean izaten da eta barazki, fruta eta lorak saltzeke sasoi onena iraila da".

Gai honen lotuta, esan behar da, barazki, lora eta fruten lehiaketa San Martinetan antolatzea erabaki duela Udalak. Larunbat goizean izango da, Seminarioko patioan eta Udalez gain, Mendi Nekazaritza Elkarte ere arduratuko da antolaketaz.

◆ Aranzadi Ikastola

OHOkoen klaseak irailaren 19an hasiko dira goizez eta arratsaldez. Batxilergo eta UBikoak irailaren 23tik aurrera.

◆ Udal Euskaltegia

Bergarako Udal Euskaltegiak 1994-95 ikasturterako matrikula epea zabalik dauka. Maila guztiak emango dira eta interesatuei lehenbailehen Euskaltegitik (Zabalotegi, 13) pasatzeko eskatzen zaie. Argibide gehiago 76 44 53 telefono zenbakian.

◆ Artzamendiko 6 garaje salgai

Bergarako Udalak Artzamendiko 6 garaje subasta publiko bidez adjudikatzeko oinarriak kaleratu ditu. Aipatutako garaje horiek Bergarako Udalarenak dira, azalera eskubideko errejimenpean, 75 urtez. Garaje bakoitzaren lizitazio oinarria 1.261.269 pezetatan ezartzen da (% 15eko BEZa barne) eta aurkezten diren 6 eskaintza altuenek garaje bana eskuratuko dute. Eskaintzak hilaren bukaerara arte Irizar Jauregian aurkeztu beharko dira.

◆ Moises Aspiazu dantzataldea

Moises Aspiazu dantzataldeak urriaren 3an kurtsoari hasiera emango dio. Izena eman nahi duenak hilaren 19tik 23ra bitartean Aranzadi Ikastolara jo dezake, arratsaldeko 5etatik 6etara (*Telefonica* parean dagoen sarrera).



PSE-EEren Herriko Etxeak ezezagun batzuren erasoa jasan zuen abuztuaren 26an.

PSE-EEren aurkako erasoa salatu

Plenoak Herriko Etxearen erasoa HBri erantsi zion

Asteleheneko Plenoan PSE-EE eta EAJk salatu egin zuten pasa den abuztuaren 26an PSE-EEren Herriko Etxeak jasandako erasoa eta horren erantzunkizuna HBri erantsi zioten, HBk Ertzantza eta alderdi demokratikoen aurka bultzatutako kanpainaren barruan izan zelako ustetan. Alvaro Esparza PSE-EEko bozeramaleak adierazi zuenez, "Eako zinegotziek ezin izan dute gaur Plenora etorri baina EA alderdia ados dago mozioaren testuarekin".

Plenoan ziren HBko hiru zinegotziek Pleno aretotik alde egin zuten protesta modura. Alde egin aurretik Jesus Mari Garitanok (HB) zera adierazi zuen; "gaizki iruditzen zaigu mozioa Plenoa baino ordubeta lehenago jasotzea. Gai-


nera, zigilu barik dator eta guri mozio bat aurkezteko orduan gauza pilo bat eskatzen digute. Argi dago ez dugula ezer pintatzen. Eta atentatuari buruz, oso gogorra iruditzen zaigu guri horren erresponsible egitea".

Gai-zerrendako bigarren puntua aztertzeko orduan HBko zinegotziak Pleno aretora itzuli ziren. Idazkari lanpostua betetzeko oinarriak onartu ziren aho batez.

Azkenik, Victoriano Gallastegi alkateak Justo Garate zenaren Nere Garate alabak Argentinatik bidalitako karta bat irakurri zuen Pleno amaieran. Aipatutako kartan Nere Garatek eskerrak ematen zituen, bere familiaren izenean, Udaltzatzak uztailean bere aita herriko seme kuttun izendatzeagatik.

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



LASA

Jatetxea

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29



Osakidetzak, gripearen kontrako txertoa hartzea gomendatzen die jubilatuei.

Gripearen kontrako txertaketa

65 urtetik gorakoei zuzendutako kanpaina martxan

Gripearen aurkako kanpainana burutuko du irailaren 19tik urriaren 28ra bitartean. Osakidetzak jakitera eman duenez, 65 urtetik gorako pertsoneri (bolanterik gabe) edota bronkitis kronikoa, kardiopatia, diabetes mellitus eta gultzurrun edota gibelego gaisotasunen bat duten 65 urtetik beherako pertsoneri ere (bolanterik gabe) bakuna hartzea gomendatzen zaie. Interesatuak astelehenetik ostiralera ambulatiora jo dezakete, goizez 10etatik 13.30etara. Horrez gain, beste hainbat tokitan hartzeko aukera ere izango da: Mizpirualde Erresidentzian (irailaren 27an, 10etatik 11etara), Labegaraietako Kiroldegian (irailaren 29an, 10etatik 11etara), San Juango elkartearen (urriaren 4ean, 10-11), Elosuko el-

kartearen (urriaren 6an, 10-11), Osintxuko kontsultategian (urriaren 11n, 10etatik 12etara) eta San Prudentzioko elkartearen (urriaren 13an, 10-11).

Birus baten eraginez sortutako infekzioa da gripea, eta Osakidetzako datuen arabera, hilkortasunak nabarmen egin du gora (65 urtetik gorakoen artean % 80-90 kasuetan izaten du eragina). Hori dela eta, adin horietakoei bereziki gomendatzen zaie gripearen aurkako bakuna hartzea, kontrolatutako estudioen arabera txertaketak % 70-80 kasuetan izan baitu efektibitatea.

Beraz, jubilatuei batez ere, dei egiten zaie ahalik eta aguruen ambulatiora jo dezaten gripearen aurkako txertoa hartzera.

◆ Jubilatuen oharrak

Urriari hasiko dira Jubilatuetan terapia okupazionalerako ikastaroak (eskulanak, yoga, erreposteria, igeriketa, antzerkia, abesbatza eta pintura). Interesatuak irailean ordaindu beharko dute hiruhileko honen kuota. Era berean, artrosiserako gimnasia ikastaroak aurrera egingo du. Bestalde, poliestirenoko jaiotza bat egiten kolaboratu nahi duten guztiek izena eman dezakete Idazkaritzan. Azkenik, San Martin jaiak direla eta, bihar, ostirala, 7etan bolo txapelketa egingo da.

◆ Arrisku soldata

Bergarako Udalak enplegua sortzeko ekimen berriak suspertzeko, langabetuei zuzendutako Arrisku Soldata programa martxan jarriko du. Lehiaketa baten ondoren, aukeratutako langabetuei lan kontratu bat egingo zaie beraien ideia aztertu eta enpresa proiektua martxan jartzeko beharrezkoa litzatekeen prestakuntza jasotzeko. Aurreproiektuak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da. Informazio gehiago Irizar Jauregiko Gizarte Ongizate Sailean jaso daiteke.

◆ Odol ateraldia

Odol Emaleen Elkarteak deituta, asteazkenean 7etan odol ateraldia egingo da Seminarioko baxuetan. Azkenengoan 67 ateraldi egin ziren (6 odol emale berri). Elkarteak guztiei eskerrak eman eta herritar guztiei kolaboratzeko deia zabaldu nahi die.

*antzinako gauzak
dekoratzeko ideiak*

Rincones

dekorazioa

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxe: 76 52 98

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

UNED-BERGARA

IKASTETXE ELKARTUA

1994/95 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEAK

EPEAK

LEHENENGO EPEA:

Irailaren 15etik
urriaren 17ra

BIGARREN EPEA:

Urriaren 1etik 29ra

BULEGO ORDUAK

ASTEARTETIK OSTIRALERA

10.30-12.40
17.30-20.30

LARUNBATETAN:

9.00-12.30
(Urritik aurrera)

ARGIBIDEAK

UNED-BERGARA
Ikastetxe Elkartuko
Idazkaritza
San Martin Plaza. 69
Postakutxatila 20570
BERGARA

☎ 76 13 42 / 76 13 43 / 76 29 62

UNED-IKASTAROAK

94-95 IKASTURTEA
San Martin plaza BERGARA

EUSKAL KULTUR DEPARTAMENDUA
☎ 76 13 42 / 76 13 43

EGA

MATRIKULA EPEAK:

Irailaren 13tik 30era

TASAK: 27.000 pzta.

NOIZ: Ostegun eta asteazkenetan
18.30etatik 21.30etara.

Larunbatetan: 9etatik 13.30etara

SAKONTZE MAILA I eta II

MATRIKULA EPEAK:

Irailaren 13tik 30era

TASAK:

33.000 pzta.

NOIZ:

Larunbatetan: 9etatik 13.30etara

*EUSKAL
HIZKUNTZALARITZAREN
INGURUKO II. JARDUNALDIAK
"Adierazkortasunaren bideak"*

MATRIKULA EPEAK:

Irailaren 13tik urriaren 13ra

TASAK: 17.000 pzta.

IRAUPENA: Urritik abendura

*EUSKARA HISTORIAN ZEHAR
MATRIKULA:* Abenduan
IRAUPENA: Urtariletik apirilera

"NI aren IDAZKERAK"

(Memoria, autobiografiak)

MATRIKULA: Abenduan

IRAUPENA: Urtariletik maiatzera

Hezkuntza

Eskolara itzulera

- Nolakoa izaten da ikasleen eskolara bueltatzea?

- Ba, egia esan, OHO-Ko lehen mailatik 5. mailara artekoak oso pozik bueltatzen dira. Lagunekin bildu eta irakasle berriak ezagutzeko gogoak izaten dituzte eta, lehen egunetan behintzat, ilusio haundiz ikusten zaie. Giro ona ikusten da: aurtengoa hasiera trankila izan da eta, guztiak baikor hasi dira, asmo onekin gainera.

Kontutan hartu behar da, bestalde, kurtso hasiera ez dela oso gogorra izaten. Lehen egunetan aurreko urteko erreposoa egiten da gehienbat, galdutako ohiturak finkatuz eta gogora araziz. Gabonak arte ondo joaten da ikasturtea, baina ikasleei, Gabon ostean, 3. eta 4. hiruhilekoak oso gogorak egiten zaizkie.

- Haurreskolan negar gehiago izango da...

- Bueno, ni ez nabil haurreskolakoekin baina nere lankideek komentatu izan didatenez, ez da lehen bezala. Orain 2 urte eta 3 urteko haurrak pixkanaka pixkanaka hasten dira: lehenengo astean ordubete egiten dute bakarrik, bigarren 2 ordu egoten dira eta hirugarren 3. Hortik aurrera gurasoekin batera aztertzen dugu noiz hasi daitezkeen goiz eta arratsaldean etortzen. Sarrera,

modu honetan eginda negar gutxiago izaten da eta haurrak gurasoekin batera etortzen dira ohitu arte: klaseko ateak zabalik uzten dira eta gurasoak kanpoan gelditzen dira badaezpada haurrak larritzen badira. Bestalde, 4 eta 5 urtekoak, normal hasten dira.

- Nola erreakzionatzen dute haurrek?

- 2 eta 3 urtekoak ha-



ELI UGARTE

(irakaslea)

sieran nahiko *galduta* ibiltzen dira, euren artean jolasten hasten diren arte, zertxobait kostatzen zaie eta. Ia inguruko herri guztietan ere 2 urterekin hasten dira; gurasoek eskatzen zutelako hasi zen eta adin horiekin haurren

arteko harremani ematen zaie garrantzia gehien, ikasleak elkar ezagutzen eta lagun taldeak sortzen joan daitezten.

- Gurasoekin harremanik izaten da?

- Bai, aurreko ikasturtean esate baterako Gurasoen Eskola jarri genuen martxan, beraiekin batera heziketarekin zerrikusia zuten gaiak aztertzeko asmoz. Hitzaldi informatibo batzuk antolatu genituen eta, besteak beste, autoestima, seme-alaba eta gurasoen arteko harremana, beren seme-alabentzat nahi zuten heziketari buruzko inkesta edota ikasteko teknikak landu genituen. Gurasoak oso gustora geratu omen ziren eta aurten ere berriz txarla informatibo horiek antolatzea pentsatu dugu, iaz erantzun oso ona jaso genuen eta.

"Klaseko lehen egunak trankilak izaten dira, ikasleak ilusio haundiarekin hasten dute urtea"



Oporrak gustoko izan arren, iraileko lehen klaseak gustora hartzen dituzte haurrek, eskolako lagunekin berriz ere biltzen direlako.

Fluorra dauka gure etxeko urak

Uztailean ekin zitzaion Urkuluko urari fluorra botatzeari

Pasa den uztailetik aurrera, proba bezala bada ere, fluorra botatzen hasi dira Urkuluko biltegian, Osakidetzak agindutakoari jarraituz. Neurri horrekin Osakidetzak haurren artean txantxarra edo kariesa murriztea espero du. Talde ekologistak erabaki horren aurka azaldu dira eta Eguzkik fluorra ez erabiltzeko eskatu du, euren ustez osasunaren aurka baitoa.

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo sailak, 1988ko martxoan eta dekretoz, 30.000 biztanle baino gehiago dituzten hiriguneak fluoratzeko agindua eman zuen.

Pasa den uztailearen 7an Urkuluko ur biltegiako urari fluorra botatzen hasi ziren proba bezala. Osasunaren Erakunde Mundialak (OMS) bere egunean hagineta kariesak ekiditzeko gomendatu zuen fluorra erabiltzea. Printzipioz, gomendatzen den fluoraren erabilera 1 ppm.koa da gehienez, baina Urkulun 0,3 ppm erabiliko da.

Urkuluko ur biltegiako arduradunek adierazi digutenez Osakidetzak agintzen duenean hasiko dira, maila gorenean erabiltzen. "Fluorra produktu kimikoa izanik kontuz ibili behar dugu. Izan ere, 1,5 ppmra beltzen bada fluoraren neurria osasunerako kaltegarria da eta ondorioz makinak (bonbak) berez gelditzen dira" dio Urkuluko tekniko batek.

Gaur egun Urkuluko ur biltegitik Antzuolara, Aretxabaleta, Arrasate, Elgeta, Eskoriatza, Oñati, Soraluze, Eibar eta Bergarara eramaten da ura. Bere ur kapazitateari bu-


ruz, Urkulun adierazi digutenez, gaur egun %72'6an dago. "Gauden urteko sasoiaren egoteko nabiko ondo dago. Izan ere, ur falta izateko presia %50a baino beherago egon beharko litzateke".

Bergarako datuei helduz urteko egun guztietan gauza bera gertatzen ez den arren, batz bestegure herriak eguneko 3.000 metro kubiko ur kontsumitzen ditu. Guz-

tira, ur biltegiak urtean ematen duen uraren %10a gutxi gora behera. Ur fluoratuaren erabilpena dagoeneko martxan dago Euskalerriko beste toki batzuetan, Gasteiz eta Bilbo inguruan hain zuzen ere.


"Fluorra produktu toxikoa da"

Bestalde Eguzki talde ekologistak ez du begi o-



Urkuluko urtegian obretan ari dira bere kapazitatea bikoizteko

"Bergarak, batz bestegure, 3.000 metro kubiko ur kontsumitzen ditu egunean. Urkulutik urtean irtetzen den %10a gutxi gora behera"



Urkuluko urari kloroa eta fluorra botatzen diote egunero.

nez ikusten Urkulun fluorra botatzea eta bide horri jarraituz talde ekologistak Deba Garaiko Mankomunitateari Urkuluko urtegian fluorra ez erabiltzea eskatu dio. Eguzkiko kidea den Aitor Aranzabalek adierazi digunez, "Frantzia, Danimarka edo Noruegan uren fluorazioa debekatu edo ez erabiltzea abolkatu dute. Nobel sarien irabazleak, Thovel eta Van Euler suediarrek ezezik Martins iparramerikarra ere neurri borren aurka azaldu dira. 1985-ean Gipuzkoako Diputazioa fluorazioaren aurka agertu zen eta EEBBetako hainbat hiritan ere ez zuten sartu fluorazioa".

Uren fluorazioak osasunerako kalteak sor ditzakeela uste du talde ekologistak. "Fluorra berez produktu toxikoa da eta urteak pasa abala, nahiz eta dosi txikietan

kontsumitu, osasunean hainbat kalte sor ditzake. Horien artean fluoraren kontsumoa minbiziaren gehikuntzarekin, mongolismoarekin, giltzurrunetako gaitzekin, bihotzekoekin, etb.ekin harreman du. Horrez gain, batzuentzat onuragarri dena, besteentzat kaltegarria izan daiteke, esaten digute ez automedikatzeko eta orain derrigorrez ematen digute fluorra".

"Naturarentzat ere kaltegarria"

Gizakiarentzat kaltegarria izateaz gain naturarentzat kaltegarria izan daitekeela azaldu dute ekologistek. "Fluorra kutsagarria da. Gizakiak kontsumitzen ez duena, erreketara, lurrera eta itsasora doa eta ura kutsatzen duen beste elementu bat da".

Bestalde, Eguzkik ez du argi ikusten instituzi-

oen jarrera fluoraren inguruan, ekologisten iritziz hiritarrek gai horri buruzko informazio eskasa izan baitute. "Deba Garaiko Udaletan mozioak sartu genituen eta hortik Mankomunitatera bidali gintuzten. Hortik Diputazioa eta handik Gasteizko gobernura. Hemendik Osakidetza eta hortik berriz Gasteizko gobernura. Momentu honetan informazioaren zain gaude" dio Aranzabalek.

Azkenik, ekologistek hainbat alternatiba ikusten dute fluorazioaren aurrean. Horien artean azukrearen kontsumoa jeistea, ahoko higiena bultzatzea, nahi duenak produktu fluoratuak erabil ditzala (dentrifikoak, txikleak, enjuageak eta horrelakoak) eta elikagai osasuntsuagoak erabiltzea.

"Fluoraren kontsumoa minbiziaren gehikuntzarekin edota giltzurrunetako gaitzekin, harreman du"



Uztailetik ura fluorarekin etortzen zaigu etxera.

Bergarako eskoletan B ereduan ikasten duten 8. mailako ikasleek, irailaren 7tik aurrera euskara lantzeko beste aukera bat dute Aintxintxika programari esker eta guzti hori etxetik irten gabe.

Aintxintxika programa Jardun elkarteak, Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin, jarri du martxan eta irailaren 7tik 25era bitartean zortzigarren mailan B ereduan ikasten ari diren eta datorren urtean D ereduan izango direnak, euskara lantzeko programa berezi bat ari dira jarraitzen. Goizeko 10etan Euskaltegira joaten dira eta lehen ordu t'erdian matematika klaseak hartzen dituzte, baina hiztegi aldetik bakarrik.

Bigarren ordu t'erdian euskara lantzen dute, batez ere ahozko euskara. Goizeko klaseak amaitu ondoren gartzela zaharrena joaten dira eta bertan bazkaltzen dute. Bazkalostean 4rak arte libre dute eta hortik aurrera eskulanak, jokoak etab. egiten dituzte. Arratsaldez 8 ikasleek Aranzadi ikastolako beste 15 ikasleren bisita jasotzen dute, Bergarako euskara lan dezaten batipat.

Ekintza gehienak gartzela zaharrean egiten dituzten arren, asteburuero irteerak egiten dituzte. Esate baterako Arrasate

Euskara lantzen

'Antxintxika programa' jarri du martxan JARDUN elkarteak

Telebistara eta joan den asteburuan Izurtzako aterpetxean izan ziren.

Aintxintxika programa aurrera eramateko lau begirale ari dira joan den urtean eta Jarduneko dinamizatzailea den Josu Aranak adierazi digunez, esperientzia nahiko baikorra ari da suertatzen. "Programaren helburu nagusia gazteek euskara lantzea da, institutorea joaten direnean D ereduan arazorik ez izate-

ko. Baina lehenengo bi egunak nabiko ezkorrak izan ziren. Gazteak ez daude euskaraz hitz egiten ohituta eta asteburu-ko irteeran gauzak hobera aldatu dira. Euren artean euskaraz hitz egiten zuten, nahiz eta bakarrik egon".

Begiraleen ahotik Antxintxika programa zer den jakin dugu. Hala eta guztiz ere, programaren protagonistarik nagusienak gazteak dira eta eu-

ren iritzia jakiteko Iñigo Blazquez eta Iban Garcia-arekin izan gara berriketan. Bi gazteek esperientzia ona izan dela adierazi digute. Halere, badaude une aspergarriak, baina helburu nagusiena, euskara ikastea, betetzen dela adierazi digute. "Guk etxean eta kalean normalean gaztekeraz hitz egiten dugu. Hemen gaudenetik euskaraz gehiago aritzen gara eta erraztasun baundiagoa dugu"



B eredutik D eredura pasatzen diren ikasleei laguntzea da Antxintxika programaren helburua.

AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 18 23
BERGARA

anezka

Udazkenerako oihalak
eta lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

...hijo de Bergara

Agirreko San Martin, beste frantziskotar batzuekin batera Japon aldean gurutzatu zutela eta Nagasakiko martiri bihurtu zela aski ezaguna da gure herrian, bere omenez ospatzen baitira, aspalditik, San Martin jaiak.

Askok jakingo ez duzuen a-herriko zaharrenek ziurrenez jakingo duten arren- orain dela 60 bat urte, gerra aurretik, San Martin eguna irailaren 11n ospatzen zela da eta ez irailaren 16an gaur egun bezala. Zergatik aldatu zen fetxa hori? Arrazoa kurioso samarra da eta hurrengo lerroetan azaltzen saiatuko gara. Gerra aurretik San Martin eguna irailaren 11n ospatzen zen, Agirreko San Martin jaio zeneko eguna ospatzen zelako. Bezperan, 10ean, pasakalea antolatzen zen eta herritarrek balkoietan iluminariak eta kolgadunak jartzen omen zituzten (gaur egun danborrada antolatzen den moduan). Pasakalean «siempre ha sido y será San Martin de Agirre hijo de Bergara» kantatzen zen, goierritarren batek Beasaingoa zela uste bazuen ere, gauzak argi eta garbi utzi nahian edo.

Garai hartan ere bazen San Martingo batzarra, San Pedroko parrokiaren ingurukoa, eta San Martin jaiak antolatzeko ardura zuena. Bertako partaide batzuek (Jose Mari Irigoyen abokatu ospetsua, Periko Zabala, Jabier Etxaniz, Periko Mendibil edota Oyarbide besteak beste)

Zabalaneko rebotikan egiten omen zituzten euren tertuliak.

1930. urtean, gutxi gorabehera, Gasteizko Obispoak, Mateo Mujika goierritarrak, San Pedron Ceferino Oñatibia urretxuarra parroko zegoela (San Pedroko parrokoa izateaz gain Bergarako artziprestea ere bazen eta urte batzuk geroago Aita Santuaren prelatu dominikoa izatera iritsi zen), San Martinen omenezko jaia irailaren 16an ospatzea erabaki zuen, kanonizatu zuten eguna zelako.

Baina erabaki horrek sekulako istiluak sortu omen zituen herrian.

Garai hartan, Gasteizko obispoa Bergarara etortzen zen bakoitzean Mariaren Lagundiko konbentuan egiten zuen ostatu eta jendeak, manifestazioan bertara hurbildu eta harrika jardun zuen obispoak hartutako erabakiaren aurka protestatzeko. Istiluak oso zaratzatuak izan omen ziren eta oso komentatuak inguruko herrietan ere. San Martingo batzarreko tertulianoek, bestalde, euren etan jarraitu zuten eta urte batzuk beranduago San Martin irailaren 11n ospatzen jarraitu zuten. Herritar askok ere hilaren 10ean iluminariak balkoietara ateratzen jarraitu zuten eta anekdota modura aipatzea merezi du Jose Mari Irigoyen abokatua San Pedroko parrokiatik borratu egin zela eta ez zuela bere bizi guztian berriz ere San Pedro zapaldu, Santa Marinara joaten baitzen mezatarara. Hori bai, bere hileta elizkizunak San Pedron egin ziren. Hau guztia herriko zaharrenek gogoan izango dute oraindik eta guk Luisa Agirrezabal eta Alfonso Gallastegiren ahotik jaso ahal izan dugu.



EGITARAUA

IRAILAK 15 OSTEGUNA

18.00:

Bergarako Eskolarteko Xake Txapelketa, eta umeentzako Marrazki eta Argazki lehiaketa (Gaia: "xakea"). Zabalotegin.

19.00:

Buruhaundi, kiliki eta erraldoein kalejira, Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzaineroek alaituta.

19.00:

Haurrentzat bonba japoniarrak.

22.30:

Danborradaren irteera.

24.00:

Hermanas Ross orkestarekin dantzaldia San Martin plazan.

IRAILAK 16 OSTIRALA

8.00:

Diana Udal Txistulari Bandarekin.

8.30:

Sokamuturra Barrenkale, San Martin Plaza eta Bidekurutzetatik zehar.

11.00:

Meza Nagusia San Pedro elizan. Udal Korporazioa joango da, Udal Musika Banda eta Txistulari Bandak lagunduta.

12.00:

Udal Musika Bandaren kontzertua, San Martin plazan.

18.00:

10 orduko Xake Azkarraren Maratoia irekia, Zabalotegin.

18.00:

Moises Azpiazuren Oroimengaldia. Bikoteen Dantza Askatuko X. Txapelketa Seminarioko patioan.

19.30:

Haurren Danborrada Musika Eskolako Bandak lagunduta.



▼▼ **Danborrada** San Martin jaietako ekitaldi nagusienetakoa izango dugu. Ostegunean 10.30etan nagusien danborrada aterako da eta ondoko ibilbidea beteko du: Seminarioko patioa, Irizar Ibilbidea, Barrenkale, Bidekurutzeta, San Pedro kalea, Artekale, Arrurriaga, Masterra, Infernokua eta Seminarioko patioa. Aurten megafonia mugikorra jarriko da danborrada jarraitzeko. Udal Musika Bandak lagunduta, bertan izango dira Zuloa, Arrano, Azules, Aritzeta eta Xamatzeko ordezkariek. Amaieran, San Martinen gurutzatzea antzetzuko da Seminarioan. Ostiralean, berriz, haurren txanda izango da eta ziur gaude hauek ere sekulako burrundada sortuko dutela herriko kaleetan.

▼▼ Igandean **Txakur Heziketaren Erakustaldia** izango da

eguerdiko 12.30etan Seminarioan. Bi proba izango dira: *agility* deiturikoa eta jarraian defentsa/erasoa probak. Lehendabizikoan arraza ezberdineko txakurrek trabaz beteriko zirkuitu bat bete beharko dute. Proba honetan Bodeletik (Frantzia) 10 bat txakurrekin etorriko den talde batek hartuko du parte. Defentsa/erasoa probetan bereziki hezitutako txakurrak egongo dira; 4-5 bat txakur izango dira eta ikuskizun ikusgarri bat eskeintzen saiatuko dira Zarautzeko Urdanetako Haztegikoak



Antzerkia

Larunbatean **Salitre** antzerki taldeak "**Gozo, gozo, gozoa**" kale antzerkia eskeiniko du San Martin plazan eguerdiko ordu batean. "Baterere zentzurik gabeko ikuskizuna da, edozein goroarazko amak semealabei ikustea debekatuko liekena" azaltzen digute Salitrekoek.

Ez da horrenbesterako izango... Ziur gaude Josu Bilbao, Jon Ariño eta Jesus Peñas antzezleek guztion irrifarreak pizten saiatuko direla. Jendeak parte hartzea besterik ez da falta...

Rock jaialdia

Rock jaialdi azpimarragarria ostiral gauetan, 10.30etan, Plazan izango duguna. *Ipar Rap Eroak* eta *Def Con Dos* musika taldeak San Martin gaua alaitzeaz arduratuko dira. Horretarako indarra behintzat ez zaie falta, beren disko eta maketetan eta batez ere zuzeneko emanaldietan argi azaldu dutenez. Rap eta erritmo alaiak nagusi direla, Legazpiko *Ipar Rap Eroak* eta Kataluinako *Def con Dos* taldeek azken urteotan landu izan dituzten kanta ezagunak eskeiniko dizkigute bergarroi eta ziurrenik inguruko herrietatik hurbiltzen diren musikazale ugariri. Katalanak, besteak beste, "Acción mutante" filmearen musika egiteagatik ezagunak dira.



▼▼ **Barazki, lora, fruta eta gazten** lehiaketa, hasiera batean Erramu Zapatuko Ferian antolatzen asmoa bazegoen ere, azkenean San Martinetan antolatzea erabaki du Udalak, Deba Bailarako Mendi Nekazaritza Elkartearen laguntzarekin. Larunbatean goizeko 10etatik aurrera Seminarioko patioan izango da (eguraldi txarra egingo balu, Simon Arrietako arkupetan egingo litzateke) eta sari banaketa arratsaldeko ordu baterdietan egingo da toki berean. Honako sari hauek banatuko dira: Barazki eta fruten atalean, 35.000, 20.000 eta 15.000 pzta. hiru onenentzat. Moztutako zein etxeko loren artean, 20.000, 10.000 eta 5.000 pzta.ko saria lehen hirurentzat eta 2.500 pzta.ko dieta lehiaketara aurkezten diren gazta egileentzat.

EGITARAUA

IRAILAK 16 OSTIRALA

22.30:

Suzko erroberak San Martin Ikastetxeko patioan.

23.30:

Rock jaialdia, *Ipar Rap Eroak* eta *Def Con Dos* taldeekin San Martin plazan.

IRAILAK 17 OSTIRALA

10.00:

Barazki, fruta, lora eta gazten lehiaketa, Seminarioko patioan.

13.00:

"Gozo, gozo, gozoa" kale antzerkia *Salitre* antzerki taldeak emana, San Martin plazan.

13.30:

Barazki, fruta, lora eta gazten lehiaketako sari banaketa Seminarioan.

18.00:

V. San Martin Herri Krossa, herriko kaleetatik zehar.

18.30:

Xakeari buruzko hitzaldia Xake taldearen egoitzan, Zabalotegin. Angel Muela eta Lukas Iruretagoiena arituko dira.

22.30:

JARDUNEK antolatutako Bertso Jaialdia Mariaren Lagundiko aretoan. Ainhoa Agirreazaldegia, Andoni Egaña, Xabier Euzkitze, Unai Iturriaga, Angel Mari Peñagarikano eta Jokin Sorozabal arituko dira bertsotan eta Joserra Gartzia gai jartzaile.

IRAILAK 18 IGANDEA

12.30:

Hezitutako txakurren ariketa eta defentsa erakustaldia, Seminarioko patioan.

Bertso Jaialdia

IRAILAK 17,
LARUNBATA

GAUEKO 10.30etan

MARIAREN
LAGUNDIAN

Andoni Egaña

Xabier Euzkitze

Angel M. Peñagarikano

Unai Iturriaga

Iokin Sorozabal

Ainhoa Agirreazaldeg

Gai jartzailea: Joserra Gartzia

SARRERAK OHIZKO LEKUETAN SALGAI
Aldez aurretik: 600 pzta. / Takilan: 700 pzta.

LAGUNTZAILEAK: Bergarako Udala - Gipuzkoako Foru Aldundia

ANTOLATZAILEA

Jardun



Presoen eskubideak aldarrikatzeko, Senideak taldeak Bergaran emandako prentsaurreko bat artxiboko argazkian.

Presoen eskubideen alde

Senideak taldekoek euren familiartekoen egoera kezkarria salatu nahi dute

Euskal presoak bi txandatan (irailaren 3tik 10era eta 10etik 17ra) burutzen ari diren gose greba dela eta, Senideak taldeak salatu egin nahi izan du presoen eskubideak ez betetzea eta dei egin du datorren ostegunetik aurrera kolektibo honen deitutako ekitaldian parte hartzeko.

Ostegunean, 22.30etan, enkartelada bat izango da eta datorren asteartetik aurrera, asteartero, Plazan kontzentrazioak izango dira 19.00etan. Era berean, hilaren 30ean Oñatin ere kontzentrazioa egingo da.

Senideak-ekoek salatu dutenez, egun ez dira betetzen presoen eskubideak. Beren esane-

tan, "euskal presoek egiten dituzten bost eskakizunen artean, gu hiru puntutan zentratu nahi gara: 60. artikulua aplikatzea (sendaezinezko gaisotasunak dituzten presoak kartzelatik irtezea eta ez txantaje eta erreinserzio modura erabiliz), euskal presoak Euskal Herriratzea eta baldintzapeko askatasunaren aplikatzea. Beste bi puntuak autodeterminazioa eta preso politikoaren estatutuaren onarpena lirateke baina

guk ez dugu gai horretan sartu nahi".

Senideak-ekoek uste-tan, egoera hori dispersioaren ondorioa da: "legeak presoak beren jaioterritik distantzia ulergarri batera egotea agintzen du eta ez dugu uste 1.000 km. distantzia ulergarria denik. Horrek, gainera, argi dago deserraigo soziala ekartzen duela. Eta hori gutxi baltz, egin behar diren bidaiek esfortzu ekonomiko handia suposatzen digute: batzuetan lan egu-

nak ere galtzen dira, bidaietan ere diru dexente gastatzen dugu (astero Euskadi osoko presoen bisitekin eta preso bakoitzeko pertsona bakar bat kontutan hartuz 6.685.000 pta. gastatzen dira) eta kontutan hartu presoei jantziak, dirua edo dana delakoak utzi behar diegula. Gainera hainbat kasutan "vis a vis"eko bisitak bost urte eta gero heldu dira, Etxanizen kasuan adibidez. Gero haraino joan eta bisita hori egiterik ez izana ere gertatu da Etxaniz eritetxera eraman zutelako eta bisita horren aukera galdu egiten duzu. Gurekin, senideekin jolas egiten dute askotan. Eta presoek kartzelan bertan eta trasladoetan jasaten duten egoera salatzea da: askotan aislamente zeldak beraiek garbitu behar dituzte eta trasladoak askotan egoera penagarrietan egiten dira: leiborik gabeko furgonetan ordu pila bateko bidaiak egiten dituzte, jan gabe gehienetan, jipoiak jasanez... Eta gainera ez dugu jakin izaten presoak non izaten diren, kartzela batean gau bat igarotzekotan ez baita sarri hori erregistratzen".

Senideak-ekoek ez dute erreinserzioaren gaitasunirik nahi; "hori bakoitzaren erabakia izaten da eta gu preso guztien egoera konpontzea eta eskubideak betetzea eskatzen dugu".

"Euskal presoen Euskal Herriratzea eta baldintzapeko askatasunak aplikatzea eskatzen ditugu, besteak beste"

San Martinetako danborrada gustoko duzu?



Itziar Ortiz de Zarate
61 urte, etxeakoandrea

Asko, betidanik gainera. Baina, azken urteetan jarri ohi dituzten bozgoragailu horiek burrundada haundiegia ateratzen dute. Antzinakoa politagoa zen.




Jon Askasibar
9 urte, ikaslea

Bai eta batez ere danborra jotzen irtetzea da politena, ni oraindik sekula irten ez naizen arren.



Guruzne Elkoro
25 urte, langilea

Bai gustatzen zait eta aurten gainera parte hartu behar dut Aritzeta abesbatzako beste lagun batzuekin batera.




Julian Portu
66 urte, jubilatua

Oso polita da, eta giroa alaitzeko oso egokia, hala ere ez dut inoiz parte hartu.



Laura Pérez
19 urte, ikaslea

Polita da eta gainera ikusten dut, baina jende gehiegi izaten da kale ertzetan ikusten. Sukaldariak oso barregarriak dira.




Aitor Beitia
31 urte, langilea

Bai, normalean ikusteko ohiturarik ez dudan arren, ondo dago, herriko jendeak parte hartzen duelako.



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea



Tfnoa: 77 14 24



ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Kairoren erronka

Ospatzen ari da Kairon populazio eta hazkunderari buruzko III. konferentzia NBEak antolatuta. Duela 20 urte lehenengoa burutu zen Bukaresten, Mexikon egin zuten 1984an eta oraingo honetan Kairon. Hala ere, askoz lehenago ikerketa batzuk egin ziren: Erromako Klubak egindako txostena eta Malthusen prebisioak XIX. mendean.

Aspaldiko kontuak aparte utzita, goazen egungo munduko populazioaren hainbat datu aztertzeraz: jada 5.600 milioi lagun gara eta urteko hazkundera 93 milioitakoa da. Erritmo honekin jarraituz, 2050 urterako 12.500 milioitaraino helduko ginake. Adituek diote baliabide eta populazioaren arteko oreka izateko 8.500 milioitan mugatu beharko litzatekela munduko biztanleria. Kopuru honetatik aurrera goseteak, gaixotasun endemikoak eta elikagaien falta etorriko bailirateke, besteak beste. Zenbaki hauek ikusita, beharrezkoa da hazkunderaren erritmoa murriztea.

Orain arte beste gailurretan jarduten zen, mundu garatuaren erabiltzen ziren kontzeptio metodoak herri guztietara zabaltzen. Are gehiago esango nuke, indarrean zeuden esterilizazio programak beraien idiosinkrazia kontutan hartu barik. Aitzitik, Kairoko konferentzia honetara NBEak beste planteamendu oso diferentea eraman du. Hau da, ezinbestekoa dela emakumezkoen hazkundera zabaltzea, dituzten eskubideak bai osasunari bai bere familia planifikazioari dagokionak ezagutzeko eta honekin batera aukera ekonomikoak izan ditzaten bere erabakiak hartu ahal izateko. Guzti hau herri bakoitzeko ohiturak mantenduz.

Emakumezkoak munduko populazioaren erdia gara, hala ere alfabetatu gabekoen artean % 60 eta pobreen artean % 75era igozten da portzentaia. Ez ote du merezi esparru honetan ahalegin gehiago egitea? Gogoratu Rwandan emakumeko seme-alaben bataz-bestekoa 8 dela. Euskal Herrian, berriz, 1,3. Bat nator populazio kontrolaren politikarekin, beharrezkoa baita munduko herri ez garatuak garatzeko, baina baita baliabideen banaketa hobe batekin ere: izan ere, populazioaren murrizketak ez baitu ekarriko irtenbidea, herri aberatsen lasaitasuna baino.

Maite MOZOS



Itxura

Urteak aurrera joan ahala pertsonok asko aldatzen gara, bai fisikoki bai psikikoki, ez dago dudarik: aldaketa horren ondorioz gure jarrera bizitzaren aurrean ere ez da berdina, agian betikoak gara baina desberdin jokatzen dugu. Orduan, heldutasunaz hitz egiten hasten gara.

Heldutasun gutxiko pertsona da edota bere adinerako ez du heldutasunik bezalako esaldiak behin eta berriz entzuten ditugu. Baina zer da heldua izatea? Jende askorentzat bere adinari edo bizi baldintzari dagozkion jokaera konkretu batzuk jarraitzea da, eta horrela heldutasuna kontzeptu pobrea bihurtzen da.

Badirudi adin konkretu bat izateagatik modu batez edo beste batez jokatu behar dugula eta honek ematen duela heldutasun itxura. Azken finean, heldutasun kontzeptua horretan besterik ez da gelditzen, itxuran.

Urteek esperientzia ematen digute eta esperientzia garrantzitsua da, baina honek ez du esan nahi zenbat eta urte gehiago izan helduagoak garenik.

Dena dela, guzti hau filosofia hutsa besterik ez da...

Jon Ander BENGOA

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

FERNANDEZ



**Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio, 3 Ibargarai, 2
☎ 76 22 93 ☎ 76 53 22

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50



Makurtuta, eskuman, Jose Arriola. Zutik, Jabier Linazisoro bergararraren ezker aldean, Javier Pastor Munduko txapelduna.

Jose Mari Tilves. Jende dexente bildu zen Gorlan proba jarraitzeko eta amaieran hainbat partaide (tartean **Jabier Linazisoro** bergararra) garaiko jantziekin apaindurik eta beren armekin kamara aurrean "harrapatu" genituen.

Simon Arrietari buruzko hitzaldia

Aurten bere heriotzaren 25. urteurrena betetzen dela eta, Bergarako Udalak **Simon Arrieta** (1915-1969) margolari bergararraren inguruko hitzaldia iragarri du datorren ostiralerako, hilak 23, arratsaldeko 19.30etan Miguel Altuna Institutuko Areto Nagusian.

Bertan **Victoriano Gallastegi** Bergarako alkatea, **Jose Mari Larrañaga** Miguel Altuna Institutuko zuzendaria eta **Xabier Saenz de Gorbea** EHUko Artearen Historia irakasle eta arte kritikariak hartuko dute parte. Azken honek, diapositibaz lagunduta, Simon Arrietaren izaera eta bilakaera artistikoa aztertuko du.



Simon Arrieta.

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

MUGICA

Goxotegia



Artekale, 3
☎ 76 10 34

pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...

Iletxo

Ileapaindegi
mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktoorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA



1933an jaiotakoen anaiarteko eguna

Igandean **1933an** jaiotako **bergararrek** beren anaiarteko eguna ospatu zuten; eguerdian hildakoen oroimenezko meza San Pedron entzun ondoren, Lasa jatetxean egindako bazkarian 60 lagun inguru bildu ziren. Guztiek egun ahaztezina igaro zuten elkarrekin eta datorren urtean ere hain umore onarekin bilduko direla espero dugu. Ordura arte beraz!!

Eskolara!!

Ikastetxe ezberdinetako **haurreskolako** ikasle gehienak aste honetan bertan hasi dira eskolara joaten. Ez dira falta izan negarrak eta protestak



baina atera aurrera joan ahala, lagunak egin eta irakasleekin gustora jolasten ibili dira. Argazkikoak ere zintzo zintzo ikus ditzakezue. 1994-95 ikasturtean, haurreskolan, 388 ikasle dira **Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia** (astelehenean hasiko dira) eta **San Martin de Agirre** ikastetxeetan.

Zertan dibardute ba?



Jesus Mari Plazaola 37 urteko Udaleko lorazain arrasatearrak Gipuzkoa eta Euskadiko ardi txakurren lehiaketak irabazi berri ditu (Mandubi eta Zaldibarren) "*Mendi*" izeneko txakurrekin. Plazaola 14 urte zituela hasi zen txapelketatan parte hartzen eta bere hitzetan, "*ahal dudan arte jarraituko dut*". Igandean Oñatiko Nazioarteko Txapelketan izango da "*Mendi*"rekin. Ea bere sasoi ona aprobetxatzen duen orain arte bertan lortutako bi bigarren postuak (1991 eta 1992an) hobetu ahal izateko.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

DENA 100etik

ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

ETXAGI

Jatetxea
Afariak-Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Vidal Mujika

Vidal Mujika (64 urte) San Martinetako tanborradan ikusi izan dugu askotan Umore-Onako lagunekin. Lehenbizi tanborrarekin, ondoren panadero jantzita ("13 Kg.ko ogi batekin") eta azkenik maitre, menua, lapitza eta txisterarekin.

- Ogi horrekin zein ogitarteko jango zenuke?

- Urdaiazpikoarena, lagunekin soziedadean.

- Eta txisteratik zer aterako?

- Txori txuri bat, pakearena.

- Lehengo tanborrada ala oraingoa?

- Lehengoa.

- Haurrena ala nagusiena?

- Haurrena, asko gustatzen zait.

- Zein elkartek dauzka trajerik dotoreenak?

- Umore-Onak-ek.

- Ohorezko damak nola aukeratzen dira?

- Gure lehena Itxasmendiko Mari Karmen izan zen alboan taberna duelako eta guapia delako.

- Majoretak ala ohorezko damak?

- Biak, baina baserritar eta



"Haurren tanborrada nagusiena baino gehiago gustatzen zait; tanborradarako neska sinpatikiak dira egokienak eta baserritar eta arrantzale jantzita badaude, hobeto. Afaririk? Gu bazkaria egiten dugu elkartean"

arrantzale jantzita hobeto.

- Neska politak ala sinpatikiak?

- Sinpatikiak gehiago balio...

- Afaria, soziedadean ala jatetxe batean?

- Guk bazkari ofiziala egiten dugu, soziedadean.

- Zer bazkaltzen duzue?

- Entremesak, solomilloa eta postrea.

- Nor gonbidatuko zenuke?

- Andrarik sartzen ez denez, Sussen Vascako Hans

Hermmans gerente alemana.

- Zeri buruz hitzegiteko?

- Gehien lanari eta Alemaniako egoerari buruz.

- San Martinak ala Pazkuak?

- Jaiekin, danekin konforme.

- Txikiteatzeko zenbat lagun behar dira?

- Gu astean 4-5 bat eta astebukaeretan 8-10 ibiltzen gara.

- Zenbat txikito egunean?

- 20 bat.

- San Martinetan berdin?

- Segun norberak ze gorputz daukan...

- Kinielarik egiten duzu?

- Ez, primitiva.

- Eta 100 milioi irabazi ezker?

- Familia, Caritas eta langabetuei lagundu. Nik gero eta gutxiago behar dut...

- Zer egin duzu abuztuan?

- Bergara zaindu.

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak



GAZTELU
Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzaileak


Errioxako ardoak, olioa, esnea, lejiak...
Martokua 32, tfnoa: 764594

EGUZBITZA

ERRETEGIA

- Txuletak, kokotea, itxas sapua, ehiza...
- Bataio eta jaunartze bazkariak
- Jaiegunetan enkarguak hartzen ditugu

Aranerreka, 30
☎ 76 56 03



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



Galde debalde

ERROMAN URIARTE

Azken Galde Debalden orain dela urtebete Bergarako Udalak argitaratu zuen **Justo Garateren** liburua izena galdetzen genizuen. Erantzuna: "**Un crítico en las Quimbambas**".

ERROMAN URIARTE jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria. B2erarentzat izango da, beraz, **ZUBIKUA**k emandako saria.

Zorionak **ERROMAN**i eta besteek segi jokatzeko, ea hurrengoan suerte hobea duzuen.

SANTOS IRRATI-TB

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

Koloretako TB, bideoa, soinua, elektragailuak, antenak, sukaldeak altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA
Tfnoa eta faxa: 76 26 10



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



ERROMAN URIARTEK jaso du aste honetan ZUBIKUAK emandako saria.



SANTOS IRRATI-TB

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

Koloretako TB, bideoa, soinua, elektragailuak,
antenak, sukaldeak altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA Tfnoa eta faxa: 76 26 10

Hurrengo Galde Debaldeko saria
SANTOS ETXEAK emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

San Martin bezperan gauden honetan, Bergarako semerik ezagunenetarikoari buruzko galdera egitea tokatu zaigu oraingoan. Jakingo duzue, bihar, irailaren 16a, Agirreko

San Martin kanonizatu zuteneko eguna ospatzen dugu bergarar guztiok.

San Martin, 1567. urtean Bergaran jaioa, 1597ko otsailaren 5ean hil zuten Japonen 29 urte zituela. Baina jakingo al duzue galdera honi erantzuten?... Ea ba hor doa galdera:

**Japoneko zein herritan gurutzatu eta hil zuten
Agirreko San Martin?**



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



Lehen maila: Multzo bakoitzeko talde guztiek euren artean jokatuko dute buelta bakarrera. Ondoren A eta B multzoetan bost lehenengo postuetan sailkatzen diren 10 taldeek, multzo bat osatuko dute eta euren aurka jokatu-ko dute. A eta B multzoetan azkenengo bost postuetan sailkatzen diren 10 taldeek, ostera, beste multzo bat osatu eta euren artean jokatu-ko dute.

Azkenik, lehen multzoko hamarrek eta bigarren multzoko bi lehenengok, guztira 12 talde, datorren urtean lehen mailan arituko dira. Gainontzeko 8 taldeek, ber-ritz, bigarren mailan jokatu-ko dute datorren urtean.

Bigarren maila: Multzo bakoitzeko taldeek euren artean jokatu-ko dute buelta bakarrera. Ondoren, C taldeko lehen hirurek, D taldeko lehen biek eta E taldeko

lehen biek, multzo bat osatuko dute. C taldeko 4. eta 5.ak, Dko 3.ak, 4.ak eta 5.ak eta Eko 3. eta 4.ak, beste multzo bat osatuko dute. C taldeko 6. eta 7.ak, Dko 6. eta 7.ak eta Eko 5. eta 6.ak beste multzo bat. Azkenik, C taldeko 8. eta 9.ak, Dko 8. eta 9.ak eta Eko 7. eta 8.ak, beste multzo bat era- tuko dute.

Multzo bakoitzeko taldeek euren artean jokatu-ko dute eta on-

doren, lehen multzoan lehen lau postuetan sailkatzen direnek jokatu-ko dute datorren urtean 2. mailan. Lehen multzoko azken hirurek, bigarren multzoko guztiek eta hirugarren multzoko lehen biek datorren urtean 3. mailan jokatu-ko dute. Bukatzeko, 3. multzoko azken laurak eta 4. multzoko guztiak laugarren mailan arituko dira datorren urtean. Be-raz, joko prest!!!

• lehen maila • lehen maila • lehen maila • lehen maila •

- OH ZEREZOS
- GUADALEST
- ANGIOZAR
- ETXAGI
- UVE BIKOITZA
- BAR CANALEJAS
- OGIZUN
- MONGATXURRA
- MADURA
- ERROTAGAIN



Hil honen 24an hasiko da txapelketa

- USOA
- REVIENTA
- ARLOTEAK
- ARKUPE
- OS JARDINEIROS
- BILDURB. OPEL-LAM
- UFALA
- PAGOMENDI
- KABIA
- OZAETA

• bigarren maila • bigarren maila • bigarren maila •

- KRITERIUM
- A ZE FLAXA
- CONSTR. BERGARA
- TXIPIRON
- PAOK SAN JUAN
- NAHIK. HOOL.
- NEKROFILICOS
- KRAI
- KRISTON P.

- AMOZKIBAR
- ALDOKA-MALDOKA
- EH BITERRAK
- LA JUVE
- IGANDEKOAK
- LA TXUPETA
- ETXENAGUSIA
- LABEGARAIETA
- SHAKTALE

- PIKAPIEDRAS
- PATA NEGRA
- KIROLZALEAK
- ARIARI
- ERI
- HARTU ZAMAK
- PACHARAN TAM
- EZINLEIKE

Era guztietako kirol iharduerak datozen hilabeteetarako

Udaleko Kirol Zerbitzuak haur, gazte eta eda-
detuentzako iharduerak antolatu ditu. Irailetik
abendura bazkideentzat igeri ikastaroak izango
dira. 3 eta 4 urteko haur-
rentzat 10 klaseko ikas-
taroak antolatu dira
18.30etatik 19.15etara eta
prezioa 6.700 pta.koa da.
Bi maila bereiztuko dira:
hasierakoak astelehen
eta asteazkenetan (iraila-
ren 19tik urriaren 24ra
edota azaroaren 2tik
abenduren 5era) eta ho-
bekuntzakoak astearte
eta ostegunetan (irailaren
12tik urriaren 20ra edota
urriaren 27tik abendu-
aren 1era).

Bestalde, nagusien-
tzako ikastaro arruntak 3
txanda ezberdinetan
emango dira, 20 klasetan
(astelehenetik ostiralera)
eta prezio ezberdinekin:
5.100 pta. (18 urtera arte-
koak), 6.400 (18 urtetik
gorakoak) eta 1.750 pta.

(langabetu, jubilatuta eta
etxeakoandak).

Era berean, ondoko
kirol iharduerak iragarri
dira 15 urtetik gorakoen-

tzat (hauetan ez da derri-
gorrezkoa bazkide iza-
tea). Mantenimendu gim-
nasia (goizez Kiroldegian
eta arratsaldean Martinez

de Irala Ikastolan), aero-
bika (Institutoan arratsal-
dez), ur-aerobika (arra-
tsaldez Igerilekuetan),
mantenimendu gimnasia
urtean zehar (arratsal-
dez). Argibide gehiago
Kirol Zerbitzuan (Irizar
Jauregian) edota 76 59 57
telefonoan jaso daitezke.



Edade guztietakoek izango dute kirola egiteko aukera.

Kirol ikastaroak

Halaber, Deba Baila-
rako euskara eta kirol zer-
bitzuek kirol ikastaroak
euskaraz antolatu dituz-
te. Titulo ofiziala lortze-
koak atletismoa (Elgoiba-
rren) eta boleibolekoak
(Arrasaten) izango dira
eta horrez gain, patinajea
(Elgoibarren), rugbya eta
futbola (Bergaran), kirol
bendajeak (Eibarren), au-
rrekiroleko jokoak (De-
ban) eta orientazioa men-
dian (Oñatin) ikastaroak
egongo dira. Interesatuak
Kirol Zerbitzura jo deza-
kete informazio eske.



Zatoia
Boutique

Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINITZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A
U
T
O
A
K



Gaspar

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF SERVICE-A**

Barrenkale 31
Tfnoa: 76 20 02
BERGARA

ZUBIAURRE

aroztegia

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.
HORMA ARMAIRUAK.
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73



Xake astearen barruan, asteartean aldi bereko partidak jokatu zituzten Martin Arriaran eta Ibon Elkoroberezibar bergarar jokalariek 20 bat lagunuen aurka (goiko irudian). Bestalde, astebukaeran jokatutako Bergarako Open Irekian 70 partaide izan ziren eta irabazlea Mario Gomez izan genuen. Martin Arriaran 23. postuan sailkatu zen eta Alfredo Araujo 32.a izan zen. Bihar ostirala, 6etan, Xake Azkarreko Maratoia jokatuko da Zabalotegin eta larunbatean, berriz, Miguel Angel Muela eta Lukas Iruretagoienaren hitzaldia izango da 6tan eta ordu berean Deba Arroko taldeen arteko finalak.

Iberdrola taldeko Asier Etxezarreta txirrindulariak irabazi zuen igandean, bigarren mailako afizionatuentzako jokatutako XXIX. San Martin Saria. Ibargaraiko helmugan, Etxezarretak 35 segunduko aldea lortu zuen 6 txirrindulariz osatutako talde batekiko. Bigarren postuan Javier Nieto (ACR) sailkatu zen eta, denbora berdinarekin, Ibon Urrea (Kaiku), Elkorobarrutia (Baque), Ayestaran (Iberdrola) eta Martin (ACR).



Goizeko 9etan irteera eman eta proba eguerdian amaitu zen.

IGERILEKUAK ITXI EGINGO DIRA

Igandean kanpoko igerilekuak itxiko dira eta astelehenetik aurrera barrukoak izango dira zabalik, 8etatik 21.00etara. Kanpoko igerilekuetan oraindik ere eguzkia hartzeko aukera egongo da.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Gimnasia Erritmikoa egiteko interesatuta dauden 5 urtetik gorako neska guztiak Ariznoa Ellkarretek Kultur Etxean duen bulegotik pasa daitezke, 6etatik 8etara.

KIROL KARTELDEGIA

Bihar ostirala, 7etan, Arrasateko Urbina-Maltzaga (lehen maila) eta La Salle Deusto (2. maila) taldeen arteko saskibalo partidua Kiroldegian. Larunbatean, 4retatik aurrera, Bergarako gizonezkoen kadete, gazte eta senior eskubalo taldeek Gasteizko El Pilar Funch taldeen aurka jokatuko dute. Azkenik, futboleant, larunbatean 4retan Bergara-Antoniano (neskak) eta 17.45etan Bergara-Gure Txokoa (lehen errejionala).



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

AKORT
San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

BOLINTXO
Kirola egiteko behar den guztia
Ibargarai 10,
☎ 76 38 32

LARREA
TABERNA
Kale Barren 17
ANTZUOLA



Peña anaien despedida, 1949

Aste honetako erretratu zaharra orain 45 urte aterakoa da. 1949ko uztailean Peña anaiak Perura joan ziren bizitzera eta lagunek Labegaraietako Agirrebeña tabernan despedida eskeini zioten. Orain, argazkian agertzen diren gehienek 64-68 urte bitartean izango dituzte. Horra hor zeintzuk diren ezkerretik eskumara:

Makurtuta: Julian Egaña, Vinicio Berasategi, Martin Arana, Angel Mujika eta Iñaki Arrieta.

Zutik: Alfonso Gallastegi, Perico Payros eta, hauen atzean, Manolo Navarro, Juan Jose Hernando, Iñaki Mujika, Felix Berraondo, Jaime Miota, Carlos Orueta, Justo Peña (Carlosen atzean), Luis Payros, Jose Mari Miota (Luisen atzean), Patxi Uralde eta Agustin Peña.

Argazkia: Maria Luisa Orueta




Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Teileria ☎ 76 27 93
Labegaraita Auzoa



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Donostin, Amara Berrin. Eguzkitsua. ☎ 46 36 53 (19-22.00).

Garajea salgai Torreku-an. ☎ 76 18 82.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 44 60.

Pisua alokatzen da Barrenkalen. ☎ 76 44 34.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Pisu amueblatua alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Zubiaurren **pisua alokatzen da**. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Oporrak Zarautzeko etxe batetan igarotzeko aukera. ☎ 13 28 49.

Pisua salgai Martokon. ☎ 76 14 60.

Pisua salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

Pisua salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

Pisua alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87 (eguerdian eta gauez)

Pisua alokatzen da San Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

Pisua salgai San Miguel kalean. ☎ 76 02 13 (goizez).

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

DENETARIK

Datorren ikasturterako pisu bila nabil Gasteizen. ☎ 76 28 17.

Opel Kadett 1800 salgai. SS-AH. ☎ 76 58 28.

Saguzaharrak ikusten badituzu, deitu. ☎ 76 50 11 (Rosa).

Ume kotxea salgai (altua eta osorik). ☎ 76 57 74.

Erleak saltzen ditut. ☎ 76 34 28.

Bi neska pisu bat konpartituko genuke Bilbon. ☎ 76 50 67 (Jaione).

Korredore **bizikleta** salgai. ☎ 76 54 24.

Neska bat behar da Donostian pisua osatzeko. ☎ 79 37 08/79 70 90.

21 urteko **neska** batek edozein motatako **lokalak garbituko** lituzke. ☎ 76 51 76 (Leire).

Bi **bizikleta** salgai, 1-3 urte (plegablea) eta 3-6 urtekoentzat. 5.000-6.000 pta. ☎ 76 25 99.

Algortan pisua osatzeko bi neska behar dira. ☎ 76 41 59 (Amagoia).

Triall Ossa (350 cc.) motoa salgai. ☎ 76 37 42.

Igeltseritza lanak egiten dira prezio onean. ☎ 76 17 55 (21.00-23.00).

Donostian (Grosen) pisua konpartitzeko bi neska behar dira. ☎ 76 30 00.

Opel Corsa 1200 kotxea salgai (SS-AJ). ☎ 762991.

Ordenadore merke bat erosiko nuke. ☎ 76 08 19.

LANA

OHO eta BBBko klaseak. ☎ 76 17 85 (Asier).

OHO, BBB eta LH klaseak. ☎ 76 06 50 (Josean).

OHO eta BBB klaseak. ☎ 76 24 31.

Zaharrak zaintzen ditut (gauez ere bai). ☎ 76 50 63 (Mari Jose).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 42 36 (Arantxa).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Matematika, fisika, kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

Ingeles Filologian lizentziatuak, ingeles klaseak eman-go lituzke. ☎ 76 17 36.

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantzieroko klaseak. ☎ 76 05 43.

Aleman klaseak. Tituloduna. ☎ 76 12 77 (Maite).

Neska batek neska-mutikoak zaindu edota etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 25 81 (Leire).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Hildakoak

Asteartera arte ez dugu bildakoren berririk jaso

Jaiotakoak

Eneritz Bikuña Ruiz
abuztuak 27
Maialen Marauri Jauregi
irailak 2

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragarintza

✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

centro hogar MUEBLES en
ez da ziririk sartzen.



**ARRASATEKO BARIANTEA
ETA AMUEBLADORA MONDRAGONESAREN GARANTIA
2000 M² TAKO ARETOA ZABALDU BEHAR DUGU**

garantiaz



**Amuebladora
Mondragonesa**

sartzen dena: zeuk behar dituzun altzariak